

BELAUNALDIK UZTARTU – NEWSLETTER

<http://belaunaldiak.cidec.net/>

EUSKADIKO hezkuntza zentroetan Belaunaldien arteko transferentzia nola bultzatu

CIDEC-Berrikuntza Sozialak BELAUNALDIK UZTARTU proiektua garatu du: Belaunaldien arteko balio eta gaitasun partekatuak; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lagundutako etengabeko ikaskuntza jardueren eremuan kokatzen dena.

Belaunaldiak proiektuaren helburuak

BALIO eta BELAUNALDIEN ARTEKO GAITASUNEN MAPAK (esperientzia- gaitasunak - arrakastak eta porrotak) identifikatzeko proiektu experimental pilotua diseinatzea eta abian jartzea da helburua, ondorengo alderdiak elkarrekin alderatuz:

- { 55 urtetik gorako pertsonen gaitasun helduak;
- { gaur egun sektorean diharduten pertsonen gaitasun profesionalekin edo,
- { etorkizunean sektore horretan lanean arituko pertsonekin alderatuz (gaur egun hezten hari direnak).

Belaunaldiarteko gaitasunen begiratua osatzeko, Merkataritza eta Kultura sektoreekin lotutako egoera eta adin askotariko hainbat pertsonari egin diogu elkarriketa.

Zertarako balio diezaieke Belaunaldiak hezkuntza zentroei?

- { Barrutik, jarduera horretan diharduten pertsonen esperientzietatik edo bizitza-istorioetatik edo, are gehiago, hezten ari diren pertsonengandik sektorearen errealitatea ikasleei hlarazteko.
- { Ikasgelan era partekatuan hausnartzeko, belaunaldi bakoitzaren lanbide-jardueraren aurretik behar diren balio eta jarrerren mapei buruz: GAZTEAK, LAN-ESKARMENTUA DUTEN PERTSONAK, PERTSONA EKINTZAILEAK, SENIORRAK.
- { Ezagutzaren belaunaldiarteko transferentzia ahalbidetzen duten ekimen praktikoekin esperimentatzeko.
- { Pertsona gazteak ezagutza partekatzeak duen garrantziarekiko sentsibilizatzea.

Ikasgelan hausnarketa egiteko material eskuragarriak

- { Merkataritza/marketing edo kulturean diharduten edo hezten ari diren pertsonen egindako elkarrizketak.
- { Belaunaldi bakoitzaren jarrera eta balio mapak.
- { Intereseko bibliografia: Gidak, belaunaldiarteko programak abiarazteko praktika onak, etab.
- { Proiektu esperimentalaren ikaskuntzak

Hainbat idei

Belaunaldiarteko ezagutzaren transferentzia ikasgelan lantzeko hainbat idei aurkezten ditugu. Horretarako, ikasleekin garatu ditzakezuen hiru esperientzia proposatzen dizkizuegu:

Esperientzia 1: Udalerriko erreferentziako pertsona baten “Master class”

Helburua: ikasgelan antolatutako lan-saioa, non sektoreko pertsona nabarmen batek (udalerriko profesionala, esaterako, erretiroa hartu duena edo haren lanbide-karreraren azken urteetan dagoena) parte hartuko baitu, haren lanbide-ibilbidea kontatuko duena, konponbideak edo porrotak gai zehatz batean ardaztuz.

Abiarazteko ideiak:

- { Pertsonak haren bizitza-istorioa azalduko du, hasieratik (zergatik hasi zen sektorean, zeintzuk ziren haren motibazioak) gaur egunera arte.
- { Haren ibilbidean zehar sektorean izandako porrotak eta arrakastak, hartu dituen konponbideak eta sektorean lanbide-karrera egiteko jarrera identifikatzean datza.
- { Saioa dinamizatzeko, garrantzitsua da ikasleek galdera gidoia aldezturik aurretik prestatzea. Master class-a egingo duen pertsonaren aukeraketan parte har dezakete ikasleek.
- { Erreferentziako pertsonaren aurkezpena 30 minutukoa izango da eta ondoren galdera txanda eta talde eztabaida irekiko da.

Iraupena: 1,30 ordu

Esperientzia 2: Zer balio eta jarrera dituzte sektoreko belaunaldi desberdinek?

Helburua: Sektorean diharduten pertsonak dituzten jarrera eta balioei buruzko gogoeta egitea (merkataritza/marketing edo kultura).

Abiarazteko ideiak:

- { Ikasle bakoitzak banakako gogoeta egin beharko du ondorengo gaien inguruan:
 - o Egiten ari den prestakuntza mota aukeratzeko dituen motibazioak: zerk eragin du aukeraketa, etorkizuneko erronkak, etab.
 - o Bere ustez, sektorean egun lan egiten duen pertsonak zein jarrera eduki behar duen.
 - o Zer ekartzen dioten edo ekar diezaioketen adineko pertsonak (erretiro prozesuan edo jada erretiratuak) sektoreari.
- { Banakako gogoetaren ondoren irakasleek dinamizatutako talde gogoeta egingo da.
- { Gelan jasotako emaitzak Belaunaldian identifikatu diren jarrera eta balio maparekin aldera daitezke (<http://belaunaldiak.cidec.net/resultados-aprendizajes-de-la-experimentacion/aprendizajes/?lang=eu>)

Iraupena: 1,30 ordu

Esperientzia 3: Sektoreari elkarriketa: belaunaldi desberdinen begiratuak

Helburua: Belaunaldi desberdinetako sektoreko hiru pertsonari elkarriketa egitea (kultura, merkataritza/marketing), eta haien begiratuak, esperientziak eta jarrerak elkarrekin alderatzea (antzekotasuna / desberdintasuna).

Abiarazteko ideiak:

- { Ikasle bakoitzak (edo ikasle bikote bakoitzak) sektoreko 3 pertsonari elkarriketa egin beharko die.
 - o Jada erretiratu dagoen edo 55 urtetik gorako pertsona, sektorean eskarmentu luzea duena (20, 30 urte).
 - o Pertsona gaztea, edo sektorean 5-8 urte lanean daramana.
 - o Pertsona ekintzailea, bere kontura lan egiten hasi dena.
- { Haren esperientziei, sektorearen zailtasunei, jardueran jarraitzera eraman dituzten eragingarriei, familia eta bizitza profesionala uztartzeko aukerei eta abarrei buruz ikertu beharko du.
- { Belaunaldi bakoitzean identifikatutako desberdintasunak eta bakoitzaren ekarpenak jasoko dituen txosten laburra egin beharko du.
- { Txosten labur hauek taldekan aurkeztuko dira ikasgelan.

Iraupena: 1,00 ordu gelan (+ 4 ordu elkarriketak egiten)

Belaunaldiak Uztartu harri-koskorra izatea espero dugu, belaunaldiarteko ezagutza transferitzeko ekimenak abian jartzeko garrantziarekiko ikasleak eta gizartea oro har sentzibilizatzen lagunduko eta gehituko duena.

Eskerrik asko